



Agindua, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuarena, hezkuntza-aisialdiko eta denbora libreko jardueren dekretu-proiektua alde aurretik onartzen duena.

2026ko martxoaren 20ko Aginduaren bidez, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuak hezkuntza-aisialdiko eta denbora libreko jardueren dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agindu du.

Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzari dagokio dekretu-proiektu hau izapidetzea.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikulua ezartzen duenez, xedapen orokorren proiektuak idatzi ondoren, prozedura hasteko agindua eman duen organoaren alde aurreko onarpena beharko dute, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

Horiek horrela, egindako dekretu-proiektuaren testua ikusita, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa. – Hezkuntza-aisialdiko eta denbora libreko jardueri buruzko dekretu-proiektuaren testua alde aurretik onartzea.

Bigarrena. – Dekretu-proiektuaren testua Eusko Legebiltzarrera bidaltzea, Jaurlearitzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikuluko 1. paragrafoan ezarritakoa.

Hirugarrena. – Dekretu-proiektua egiteko prozedurarekin jarraitzeko agintzea, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideekin bat etorritik, Gobernu Kontseiluak onar dezan.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren egunean.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburua,

NEREA MELGOSA VEGA